

ARNAS INFEKZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINTZA

Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)

2023-2024 denboraldia
(2023ko urriaren 2tik 2024ko irailaren 29ra)

7. astea (2024ko otsailaren 12tik 18ra)

Gripe-birusaren zirkulazioak behera egiten jarraitzen du. COVID-19aren intzidentzia ere jaitsi da eta ABSk eragindako infekzioak egonkortu egin dira.


- Lehen Mailako Arretako (LMA) sarean AIA tasa 410,7 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (428,8/100.000 aurreko astean).
- Lehen Mailako Arretan, gripe-sindromearen tasak beherantz jarraitzen du eta bronkiolitisarenak pixka bat gora egin du aste honetan.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 50 lagin jagoleen % 50,0 baieztatu da, 3 SARS-CoV-2 (positibotasuna % 6,0) eta 8 gripe-birus (positibotasuna % 16,0) atzeman direlarik. Ez da ABSik detektatu.
- Osakidetzako ospitale-sarean AIA larriaren tasa 15,1 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (15,8/100.000 aurreko astean).
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sistemari, aste honetan, 64 SARS-CoV-2, 107 gripe-birus eta 49 ABS erregistratu dira.

AIA Lehen Mailako Arretan

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 410,7 kasukoa izan da (428,8/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 336,6/100.000 izan da Araban, 428,6/100.000 Bizkaian eta 416,5/100.000 Gipuzkoan.

AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arreta-sarea. 2023-2024, EAE



Adin-taldearen arabera, AIAREN tasa altuena 0-4 urtekoen adin-taldean eman da 1949,8 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 5-14 urtekoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 676,8 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek behera egin dute adin-talde guztietan.

AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) araberako intzidentziari dagokionez, tasek behera egin dute ia ESI guztietan aurreko astearekin alderatuta.


AIAREN intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESIaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE

ESI	Tasa 7. astea	Tasa 6. astea	Tasen arrazoia (% 95 KT)
Arabako ESI	360,8	374,1	0,96 (0,89-1,05)
Arabar Errioxako ESI	732,8	536,8	1,37 (0,99-1,89)
Barakaldo-Sestaoko ESI	335,0	370,1	0,91 (0,79-1,03)
Barrualde-Galdakaoko ESI	446,5	469,6	0,95 (0,88-1,02)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	465,6	469,7	0,99 (0,93-1,06)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	447,5	452,5	0,99 (0,89-1,10)
Uribeko ESI	353,6	354,6	1,00 (0,90-1,10)
Bidasoako ESI	382,9	414,1	0,92 (0,79-1,08)
Debararrenako ESI	435,3	446,4	0,98 (0,83-1,14)
Debagoiengo ESI	331,5	372,1	0,89 (0,74-1,07)
Donostialdeako ESI	381,0	425,9	0,89 (0,83-0,96)
Goierrri-Urola Garaiaiko ESI	543,4	554,9	0,98 (0,87-1,11)
Tolosaldeako ESI	415,4	429,4	0,97 (0,82-1,14)

Gripe-sindromearen tasak behera egin du berriro aste honetan eta 11,1 kasu 100.000 biztanleko balioan kokatu da (18,8/100.000 aurreko astean).

Bronkiolitisaren tasak (2 urtetik beherakoetan) gora egin du eta 280,8 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (273,8/100.000 aurreko astean).


Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIaren sintomak dituzten kupo jagoletako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIArako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 50 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 50,0 baieztatu dira. 3 SARS-CoV-2 eta 8 gripe-birus (AH1pdm09 bat eta 7 AH3) atzeman dira. 7 metapneumobirus eta 6 errinobirus ere detektatu dira, baina ABSik ez.

AIA intzidentzia-tasa LMAN eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoaren arabera. 2023-2024, EAE



Gripe-birusaren positibotasunak behera egin du eta % 16,0an kokatu da (% 29,1 aurreko astean) eta SARS-CoV-2arena % 6,0ra igo da (% 0,0 aurreko astean).


Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoletan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2023-2024, EAE

	7. astea		6. astea		2023-2024 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	8	16,0	16	29,1	234	20,8
SARS-CoV-2	3	6,0	0	0,0	67	6,0
ABS	0	0,0	3	5,5	87	7,7
Metaneumobirus	7	14,0	5	9,1	43	3,8
Parainfluenza	0	0,0	1	1,8	19	1,7
Adenobirus	0	0,0	1	1,8	26	2,3
Errinobirus	6	12,0	7	12,7	227	20,2
Urtaroko CoV	3	6,0	7	12,7	54	4,8

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean


Zaintza sindromikoa

AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik eratorzen direnak. AIAL tasa 15,1 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (15,8/100.000 aurreko astean), 15,7/100.000 emakumeetan eta 14,5/100.000 gizonetan.



Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena 64 urtetik gorakoen adin-taldean eman da 43,2 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 5 urtetik beherakoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 38,6 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek gora egin dute 44 urtetik beherakoetan.

AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. Gripe-birusaren positibotasunak behera egin du berriro eta % 6,1ean kokatu da aste honetan (% 14,5 aurreko astean) eta SARS-CoV-2arena % 4,7ra jaitsi da (% 6,5 aurreko astean). ABSren positibotasuna ere pixka bat jaitsi eta % 4,9an geratu da (% 5,4 aurreko astean) eta errinobirusarena % 27,3koa izan da.

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE

	7. astea		6. astea		2023-2024 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	279	6,5	266	3,4	5684	10,6
Influenza	282	14,5	265	20,0	5360	21,5
ABS	242	5,4	225	11,6	4468	16,6

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, CAE




Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 64 SARS-CoV-2, 107 gripe-birus eta 49 ABS detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 107 gripe-birusetatik, 76 azpitipatu gabeko A motakoak izan dira, 19 A(H3), 11 A(H1)pdm09 eta bat B motakoa. 2023/40 astetik 5853 detekzio erregistratu dira, 5838 (% 99,7) A motakoak eta 15 (% 0,3) B motakoak. Azpitipatutako A motako 1774 birusetatik, 387 (% 21,8) A(H3) eta 1387 (% 78,2) A(H1)pdm09 izan dira.

Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko Mikrobiologia Zerbitzuen datuen arabera, urtarrilean, PCR bidez azterturiko SARS-CoV-2ren lagin positiboak % 27,7 sekuentziatu dira orain arte. Guztiak Omikron aldaerakoak izan dira, leinu ohikoenak JN.1 (% 90,6), BA.2.86 (% 3,0) eta JG.3 (% 1,3) izan direlarik.

Asteo SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2023-2024, EAE




COVID-19aren egoera

60 urte edo gehiagoko populazioan, 7. astean, COVID-19aren 7 eguneko intzidentzia-tasa 7,4 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (7,9/100.000 aurreko astean); 7,6 gizonetan eta 7,3 emakumeetan.

Osakidetzaren ospitale-egoeraren adierazleetatik lortutako datuen arabera, aste honetan 23 paziente ospitaleratu dira EAEn COVID-19agatik¹ (36 ospitaleratu aurreko astean), 9 gizon eta 14 emakume. Ospitaleratutako pertsonen % 82,6 60 urtetik gorakoa zen.

COVID-19agatik gertaturiko ospitaleratzeen kopurua eta tasa, aste epidemiologikoaren eta adinaren arabera. 2023-2024, EAE



¹ Txostenaren argitaratze datako behin behineko datuak

Urteko 7. astean, COVID-19 5 kasu berri erregistratu dira EAeko adinekoen egoitzetako erabiltzaileen artean (8 aurreko astean). Kasuak dituzten zentro soziosanitario kopurua 5 izan da, aurreko astean baino 2 gutxiago.

Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

2024ko otsailaren 21ean

**Zaintza Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza**